

Birkodetzea eta deskodetzea

Jamika Ajalon

Pieza honen soinua eta ikusizko osagaiak abian dagoen lana dira. Nire taldeekin birak egiten ari nintzela egin nituen argazki gehienak, eta graffitien hainbat eta hainbat testu "tokian bertan" sortu. Beste batzuetan zuzenean idazten nuen argazkien fotokopien gainean eta gero eskaneatu eta Photoshopen sartu, efektu berezirik erabili gabe, kolore doitzeari eta irudiaren tamainari dagozkionak izan ezean. Nahiago izaten dut nolabaiteko analogiko digital batetik ahalik eta hurbilen egon. Soinua, baina, elektronikoki manipulatu zen: ahotsetik hasi eta erritmoak eta zarata-begiztetaraino (Sun Ra-ren soinu-paisaia elektronikoko baten cyber bertsioaren antzera).

Den-dena, Black Poweren ukabiletatik Riot Grrrl ideologietaraino, modazko kontsumogai itzel bihurrarazten duen mundu honetan, testuak idazten nituen irtenbide baten bila. Recode and Decode sarrera gisako prosazko manifestu poetikoa da; hizkera subertsiboa sortzen du, dena gauzak bihurtzeko makinaren radarrari ihes egiteko gai dena.

www.Jamika.net

www.myspace.com/jamikaajalon